

## Hiru uhainak

Xan Errotabehere-k kontatua

Bilintx hamabost urteko ontzi mutil gazte bat da, umezurtza ; osaba Mattinek bildua, bihotz amultsuko arrantzale nagusia, zakarra izan arren. Mattinek bere emaztea maite du oroz gainetik, bistan dena, Maria bere alaba, Luisa bere itsas untzia, eta Bilintx bere iloba.

Gaur goizean, bostetan, zerua argi eta ilargia beteta delarik, Mattin itsasora abiatzekotan da esperantza ederrarekin. Bat-batean, Bilintxek, izitua, atorrari lotzen zaio azkarki. Itsasoa ez hartzeko suharki eskatzen dio : segur da ontzia hondatuko dela. Mutikoaren abisuen gatik ere, Mattinek, hiru egunez deus ez duena arrantzan hartu, amarrak uztea erabakitzen du. Bilintx biziki gaizki senditzen da ; pausatzerara bidaltzen dute.

Eguerdi aldera, hiru orduko lanaren ondotik, arrantza debaldetako da beti. Bilintx berriz agertzen da untziko zubian, arpoi bat eskuan. Boz ikaratu batez, gau hartan emazte baten eta neska baten arteko elkarrizketa batean entzundako iragarpen ikaragarria kontatzen du. Segitzen du : « emazteak erraten du : Bihar, 12.00etan, hiru uhain lanjeros altxaraziko ditut Luisa itsasontzi honen kontra. Lehen uhaina esnez izanen da, eta sinets nezazu, marinela dantzan jarriko ditu. Bigarrena malkozkoa izanen da, eta ongi aurtikiko ditu. Eta hirugarrena, odolezkoa : itsasontzia eta eskifaia osoa itsas zolara botatuko ditu. » Eta Bilintx gehiago hurbiltzen da Mattinen belarrira. « Emazteak gehitu du : Lasai zaitetz, alaba, eskifaia salba dadin, marinela batek arpoi bat bota beharko du odol uhainaren bihotzean. Bainan, ni izanen naiz, gaixo ni, hilen dena, uhain horren bihotzean egongo bainaiz. »


Mattinek bi emazte horiek nortzuk ziren jakin nahi duen bitartean, mutikoa mutu gelditzen da, begiak zerumugan finkaturik. Bat-batean, oihu bat ateratzen da : « Mattin, begira gibelera ! »

Lehen uhaina da. Lehertzen da, etxe bat bezain handia den masa zuri bat : lastozko xixtapur bat bezala altxatzen du ontzia, eta materialak eta gizonak uzkaileten ditu zubian.

Gero bigarren uhaina heldu da, itsasargia bezain gora : brankaren kontra jotzen du, eta gutik egin du itsasontziak ez baitu uzkaile. Hirugarren uhaina jadanik hemen da, odol gorriko mendi bat, ontzia zapaltzeko mehatxua egiten duena.

Segur eskifaia galdua dela, Mattinek arpoia Bilintxen eskuetatik hartzen du. Brankan jartzen da, eta bere arrantzale jite osoz, aurtikitzen du arma odol uhainaren bihotzean. Uhaina zapartatzen da eta bere burua zapaltzen du oihu arraro eta zorrotz batean. Itsasoak emeki emeki bere lasaitasuna eta berezko kolorea berreskuratzen ditu.

Izpirituak aurkiturik eta janariak irentsiririk, arrantza berriz hasten da. Sare-kolpe bakoitzak arrain meta harrigarri bat ekartzen du gainera : azkenean, xantza ezagutzen du Luisak. Iluntzean, ontzia, ederki kargatua, portura itzultzen da.



Bainan, kaira hurbiltzean, giroa ez da festan. Beltzez bezti den talde bat zain da isilik. Behin ontzia amarratuta, apeza ontzira igotzen da. Nagusiarengana hurbiltzen da berri krudela jakinarazteko : « Mattin, izan zaitez azkar... berri txar bat eman behar dizut. Egueditan, oihu ozen batek karrikaren lasaitasuna urratu zuen. Denok jalgi gara ikustera. Han aurkitu genuen zure emaztea, bizirik gabe. »

Mattinek, sesitua, berehala egiten du lotura : eguerdia, oihua, Bilintxen hitzak, arpoia... Bihotza hautsia, bere ilobarengana itzultzen da. Nerabearen isiltasun ikaragarria : bi emakumeak bere emaztea bera eta Maria alaba lagun ziren.

Bilintzek, izoztua, itsasoari begiratzen du, osabaren behakoari ezinez buru egin.